



→ Azaroko aste

bereko bi egunetan banatuta egin ziren ospakizunak. Egun bakoitzak xede bat zuen.

Lehenengoan festa giroa gailendu zen eta gizarteko eragile ezberdinen topaleku bilakatu zen Gizaideko eraikuntza nagusia.

Bigarrenengo egunak izaera sakonago eta teknikoagoa izan zuen. Ihardunalidak "osasun mental ona izateko komunitateak duen garrantzia" zuen izenburu.

Denboraren poderioz, lan moduak, soslaiak eta beste zenbait gauza aldatu dira eta gurean ere identifikazio marka eguneratzea otu zitzaigun. Horregatik, Gizaiden, mugari den urteurren hau aprobetxatuz bere irudi edo marka ere berritu nahi izan dugu. Benetan urte berezia izan da, bai. Gogoeta eta balantze urtea.

Egiten duguna sinesten dugu eta zintzotasunezko jardueraren emaitzak ikusi ditugu. Guztion arteko elkarlanean, inor ez baita soberan eta guztiak gara beharrezko.


DATU EKONOMIKOAK

Eguneko Zentroa	287.731	290.226	-3.195
Ategorrieta Pixua	325.645	322.251	+3.395
Andoain Pixua	110.964	114.758	-3.795

SARRERAK


IRTEERAK

EMAITZAK



ONDORIOAK ETA ETORKIZUNERAKO ERRONKAK

25. Urteurrenak aurtengo jardunaldian eragin handia izan du eta egindako ibilbide luze eta emankorraren isla ere izan da. Gogoeta guztiak honako ondorioak ere azaleratu ditu:



Gure eskertza Memoria honetako emaitzak errealitate bihurtzeko daitezkeen ahalbideratu duten **patronoei, boluntarioei eta kontratatutako pertsonalari.**

ESKERTZA

Eskertzea hau **Gipuzkoako Foru Aldundiari** ere luzatzen diogu Kontratu programagatik.



Gipuzkoako Foru Aldundia



www.gizaide.eus

MEMORIA 2022

Gizaide Fundazioa, duela 25 urte eratu zen Buruko Nahasmen Larria duten pertsonak artatzeko.



... Caritas, Siervas de María de Anglet eta Salesiarrak, egoera honi erantzuteko leku bat sortzea erabaki zuten.



GIZAIDE FUNDAZIOA: DENBORA LUZEZ ARITU GARA ETA JARRAITZEKO ASMOA ADIERAZTEN DUGU

Aurtengo urtea berezia izan da. Gure lehen helburuari jarraituz, Gizaideko erabiltzaileen bizi prozesuan lagungarri izateko asmoz aritu gara eta aurtengoan gainera, lan eta helburu berdinarekin mende laurdena daramagula ospatzeko unea iritsi da. 1997 an sortu zen proiektuak bizirik eta sendo dirau eta hori honela izanik, artatzen ditugun pertsonen osasun eta bizi prozesuan laguntzaile izaten jarraitu nahi dugu. Bestalde, bizi kalitate on bat izateko buruko osasun egokia izatearen garrantzia aldarrikatzen dugu eta finean, Gipuzkoan eremu honetan dauden mota guztietako beharretan elkarlagun izateko gure asmoa berresten dugu. →



ETXEBIZITZA EGITASMOAK

Etxebizitza proiektu guztietan, ikuskaritza altu, ertain edo baxua izanik, arlo berak lantzen dira

- › Autozaintzarekin eta etxeko lanekin erlasionaturiko arloa. Ikuskaritza maila ezberdinarekin eta behar denean argibideak emanez norberari arlo pertsonalean eta bere bizilekuarekiko ardura hartzea ahalbideratzen zaio.
- › Formazio eta lan arloan, egunerokotasuneko betebeharren ardura sustatzen da eta ikasketa berriak ere ahalbideratzen dira.
- › Harreman sozial egokiak izan eta mantentzen laguntzen da. Honela hainbat arlo lantzen dira, hala nola, asertibitatea edota komunikazio estiloak.
- › Familia edo bikotekidearekin harreman egokiak egon daitezen sustatzen da, beharrezko erraztasunak jarritz.
- › Ekonomia arloa, norberaren gaitasun juridiko eta pertsonalen arabera antolatzen da beti ere, gaiari buruzko xehetasun eta ulermen maila handiena ahalbideratuz.

- Intentsitate altuko etxebizitza ikuskatua
- Intentsitate ertaineko etxebizitza ikuskatua
- Oso intentsitate baxuko ikuskaritza duen etxebizitza

- › Beste erakundeek antolaturiko aisi ekintzak eta arlo komunitarioko eskeintzen berri ematen da parte hartzea ahalbideratzeko eta bertako boluntarioekin irteerak ere sustatzen dira.
- › Osasun arloari dagokionean, gaixotasun kontzientzia lantzen da eta balizko krisi (buruko gaixotasunagatik) eta minen detekzioen ezagutza lanketa egiten da prebentzioaren ikuspegi batetik. Bestalde, krisi edo larritasun egoeratan, esku-hartze egokien berri ematen da, hala nola, laguntza nori eta nola eskatu, norekin harremanetan jarri etab. adierazten delarik.

ATEGORRIETA

- › Etxebizitza honek 13 emakumeentzako plazak ditu.
- › Emakume guztiak egunero 20 orduko ikuskaritza dute, urteko 365 egunetan.

- › **Arreta:** 14 emakume artatu dira.
- › **Adin bataz bestekoa:** 56 urte.
- › **Egonaldi denbora batazbestekoa:** 4 urte y 2 hilabete.
- › **Diagnostikoa:** 3 eskizofrenia paranoide, 4 eskizofrenia residual, 1 eskizofrenia zehaztugabea, 1 eskizofrenia paranoide bereiztugabea, 1 nahasmendu bipolarra, 2 pertsonalitate nahasmendu, 1 depresio larria.

- › Bost plazako etxebizitza da.
- › Ikuskaritza baxua dauka, psikologo baten eta boluntariotzaren laguntzarekin.
- › Une hauetan, etxebizitza honen helburua ondorengo da: Gizaiden prozesu bat egin duten pertsonen etxebizitza bat eskeintzea.

- › **Arreta:** 5 pertsona artatu dira, 3 gizon eta 2 emakume.
- › **Adin bataz bestekoa:** 50 urte.
- › **Egonaldi denbora bataz bestekoa:** 3 urte eta 7 hilabetekoa da.
- › **Tutela:** 2 pertsona.
- › **Diagnostikoa:** 2 eskizofrenia paranoide, 1 psikosi toxikoa, 1 zehaztu gabeko psikosia.

- › Lau plazako etxebizitza da.
- › Une honetan bi gizonetako eta bi emakumezko daude.
- › Egiten den ikuskaritza, eguneko 6 ordu t'erdikoa da, urteko 365 egunetan.

ANDOAIN

ALDE ZAHARRA

BIRGAITZE PSIKOSOSIALEKO EGUNEKO ZENTROA

Birgaitze Psikosoialeko eguneko zentroan hainbat ekintza egiten da honako helburu zehatzak erdiesteko

- › Zentroak 22 plaza ditu.
- › Zerbitzu hau lan egunetan eskeintzen da, goizeko 10 etatik 16,30 ordurarte.

- › **Arreta:** 26 pertsona, 11 gizon eta 15 emakume.
- › **Adin bataz bestekoa:** 57,2 urte dira.
- › **Bataz besteko egonaldia:** 4 urte eta 4 hilabete.
- › **Diagnostikoa:** 9 eskizofrenia, 13 eskizofrenia paranoide, 1 eskizofrenia hebefrénia, 1 eskizofrenia residual, 1 trastorno eskizoafektiboa, 3 depresio larriak, 1 eskizofreniforme kuadroa.

- › Plangintza indibiduala egin eta jarraitu. Psikologo eta erabiltzailearen artean helburu zehatzak finkatu eta jarraipen bat egin. Horretarako, talde dinamiketan parte-hartze ezberdinak izango dira bai eta lan indibiduala jorratzen da.
- › Arlo kognitiboa landu. Tailer psikoedukativo eta pedagogikoen bidez, hots, rehabilitazio kognitibio programak garatuz eta ariketa eta tailerrak antolatuz lantzen dugu arlo hau.

- › Konpromezua eta heldutasuna azpimarratu. Zentroan eskeintzen diren aukerak ezberdinak dira, anitzak, pertsona ezberdinen motibazioa asebetetzeko asmoz.
- › Harreman sozial eta pertsonalak landu eta sustatu.
- › Egonkortasun emozional eta afektiboa bermatzen saiatu. Norberaren eta gaixotasunaren ezagutza landu, bai eta horrek sortaraz ditzakeen emozioak ezagutu.
- › Ahalduzko espazioak eman. Norberak bere adierazpen aukera izan dezan parte hartze espazioak ahalbideratzen ditugu.
- › Aisia: Norberaren ongizate autopertzepzioan aisia atal garrantzitsua da. Eremita hori betetzeko aukera eta trebezia ezberdinak erakusten dira eta besteak beste, "erabiltzaile aditu" figura ere erabiltzen dugu. Hau da, gaitasun edo afizio bat duen Gizaideko erabiltzaile batek talde dinamika bat eramaten du.